

OHIKO GALDERAK – Eraldaketa eta Erresilientzia Berreskuratze Planeko funtsekin egindako proiektuen kudeaketa (BEM funtsak):

Nola SINPLIFIKA dezaket prozesua?

Ahalik eta erosketa-unitate gehien multzokatuz jardun bakar batean hornitzaile berarekin.

Oro har, hasierako eskaera bat bete beharko litzateke erosi beharreko unitate bakoitzeko, baliozko aurrekontu bat erantsita eta Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) eta ingurumenari kalterik ez eragiteko adierazpena (DNSH) beteta, azken hau kontratua denean.

Hala ere, litekeena da kontratu txiki bat egitea hornitzaile batekin urtebetean kontratatzea aurreikusten diren zerbitzuen/horniduren zenbatespena jasota. Horrek ez du esan nahi ikertzaile nagusiak kontratatutako hornidura/zerbitzu guztiak une berean jaso behar dituenik; aitzitik, beharra sortu ahala, hornitzaileak zerbitzu/hornidura horiek eman eta hasierako kontratu txikiaren kargura fakturatu ahal izango litzuke.

Horrela, hasteko eskaera bakarra egingo litzateke, aurrekontu bakarrak, kontratu osorako IGEA eta DNSH bakarrak, kontratu horren barruan eskaera bat edo gehiago egingo diren kontutan hartu gabe.

Zenbatekora arte multzoka daitezke gastu ezberdinak, kontratu txikirik egin beharrik gabe?

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak dioenez, berrogeita hamalagarren xedapen gehigarrian, "Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Sistemako eragile publikoek egindako kontratuei aplikatu beharreko araubidez" ari delarik, hauen jardueraren izaera berezia kontuan hartuta, lege honen 118. artikuluan aurreikusitako mugaren salbuespen gisa, kontratu txikitzat hartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Espainiako Sistemako eragile publikoek egiten dituzten hornidura edo zerbitzu kontratuak, 50.000 eurotatik beherako balio zenbatetsia dutenak, baldin eta kontratazio organoaren, hauen artean unibertsitate publikoak izanik, zerbitzu orokorretara eta azpiegitura zerbitzuetara bideratzen ez badira, eta.

UPV/EHUK, bere aldetik, kontratu txikiaren gutxieneko muga 300 eurotan ezarri du, 1/2022 Jarraibidearen 1. eranskinaren a) atalaren arabera.

Beraz, **multzokatu ahal izango dira, metatuta 300 eurotatik gorakoak ez diren gastuak, BEZik gabe**, proiektuaren jarduera berean.

Justifikazioari begira, gorde beharko dira egindako gastua egiaztatzekeo behar diren tiketak eta fakturak. Informazio gehiago "Prozeduren taulan", 300 euro edo gutxiagoko hornidura zein zerbitzuetarako.

300 eta 50.000 euro bitarteko jarduketa guztiek (aurreko puntuaren arabera) nahitaez al dakarte kontratu txikirik?

Ez. Gastua Eraldaketarako eta Erresilientziarako Berreskuratze Planeko funtsekin lotuta dagoen ala ez alde batera utzita, jarduera batzuetarako ez da beharrezkoa izango kontratu txiki bat izapidetzea. Ohikoenen artean, nabarmendu ahal ditugu:

- **IZAPIDE**ren bidez tramitatutako likidazioak.
- **Kongresuetan izena ematea**, baldin eta kontratazioa zuzenean egiten direnean enpresa antolatzailearekin.
- Aldizkarietarako argitalpenak.

Azpimarratu behar da garrantzitsua dela kasuan kasuko **funtsen jatorriaren publizitatea** adieraztea.

Ikusi informazio zabalagoa Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) gerentearen 2022ko ekainaren 27ko 1/2022 Jarraibidean, UPV/EHUren barruko kontratazio txikiaren kudeaketari buruzkoan.

Liburu zientifikoak erosteak al dakar kontratu txikirik?

Bai, UPV/EHUren arautegiari jarraiki.

<https://www.ehu.eus/documents/1180425/37814411/Instrucci%C3%B3n+2022+Modificaci%C3%B3n.pdf/7231378f-c244-ba2f-2ded-97b48c061de6?t=1659081969656>

Beheko muga batetik aurrera ez da sinatu behar Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena?

Ez, IGEA nahitaezko dokumentua da **mota guztietako gastuetarako, zenbatekoa edozein dela ere** (1 €barne). Burokrazia murrizteko, gomendatzen da hornitzaile batekin egin litezkeen ahalik eta gastu gehien proiektuaren **jarduera berean** biltzea (berrikusi "prozesua sinplifikatzeko moduari" buruzko ohiko galdera).

Zer publizitate erabili behar dut BEM funtsen eraginpeko proiektuetan?

BEM funtsekin lotutako nahitaezko publizitatea jartzea ezinbesteko faktorea da egindako gastuak justifikatuko badira. Publizitate hori aldatu egiten da deialdia zein den (kontsultatu "Nahitaezko publizitatea erakunde finantzatzaile bakoitzeko" izeneko taula), eta desberdin egingo da prozedura mota zein den kontutan hartuta.

Hasteko eskabidean, IGEAn eta DNSHn jartzeaz gain, publizitatea jarri beharko da:

- Kontratu txiki bat izapidetzen denean, publizitatea eta logoak kontratuaren dokumentuetan, hornitzailearen eranskinetan eta ordainketa dokumentuan (ADO) sartuko dira.
- Kontratu txikirik ez badago eta zerbitzua/hornidura ordainketa zuzen baten bidez gauzatzen bada, saileko administrari laguntzaileak adierazi beharko du publizitatea ordainketa dokumentuan bertan (ADO), "eragiketaren testu librea" eremua erabiliz. Kasu horretan, logoak ez dira sartuko, erreferentziako testua besterik ez.
Adibidez: **TED2021-129852B-C22** proiektua,
MCIU/AEI/10.13039/501100011033 eta Europar Batasunak
finantzatutako Next GenerationEU/PRTR.
Prozedura hau ere aplikatuko da mikroinformatikako erosketetan.
- Pertsonalaren kontratuen kasuan, publizitatea agertuko da eranskinetan, kontratuan, luzapenetan, finantzaketa aldaketetan, eranskinetan...
- 50.000 euro baino gehiagoko kontratuetan, Kontratazio eta Erosketa Sailak jarriko du publizitatea.
- IZAPIDEn, garrantzitsua da publizitatea bidaiaren xedean islatzea, adibidez: **TED2021-129852B-C22** proiektua,
MCIU/AEI/10.13039/501100011033 eta Next GenerationEU/PRTR
Europar Batasunak finantzatua.

Nola kontratatu bidaiak BEM funtsekin finantzatutako proiektuetan?

Garrantzitsua: errespetatu beharko dira kasuan kasuko deialdietan ezarritako gehieneko zenbatekoak, eta arautegi propioa aipatzen bada, Irakasle eta Ikertzaileen arloko Errektoreordetzaren eta Gerentziaren erabakian ezarritako zenbatekoak, zerbitzuagatiko kalte ordainei dagokienez.

BEM funtsen eraginpeko proiektu baten kargura finantzatuko den bidaiak oro nahitaezko dokumentazio hau izan beharko du, erresilientzia.dgi@ehu.eus helbidera bidaliko dena:

- Hasteko eskaera.
- Interes gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA)
- Kontratu txikia dagoenean, ingurumenari kalterik ez egiteko adierazpena (DNSH).
Azken 2 horiek ikertzaile nagusiak (IN) (eta, balego, INkide) eta saileko zuzendariak sinatuta.

1. Ikertzaile nagusiak kontratatu eta alde zuzenetik ordaindutako bidaiak:

a) IZAPIDE:

BEM funtsei lotutako organikoak direlarik, "Bidaiaren xedea" atalean **adierazi behar da** proiektuari eta funts horien jatorriari dagokien **publizitatea**.

Adibidea: XXX proiektua (ikerketaren proiektuaren kanpo erreferentzia), MCIU/AEI/10.13039/501100011033 eta Next GenerationEU/PRTR Europar Batasunak finantzatua.

Ikertzaile nagusiak **Erresilientzia Sailari** bidaliko dizkio Izapideko espedientearen kopia bat eta egindako gastua egiaztatzen duten frogagiriak eskaneatuta (tiketak, fakturak...).
Gastu horien zenbatekoa edozein dela ere, ez da kontratu txikirik egingo.

b) Saileko idazkaritzak ikertzaile nagusiari ordaindutako faktura, LAGAPEN HARTZAILEAREN bidez:

Ikertzaile nagusiak faktura bidaliko dio (betiere **UPV/EHUren izenean**, dagokion **Q4818001B IFK** eta guzti) saileko administrazio laguntzaileari, eta honek zuzenean ordainduko dio.

Zenbatekoa 300 euro baino txikiagoa bada, publikitatea ordainketa dokumentuan bertan (ADO) jasoko da, "eragiketaren testu librea" eremua erabiliz.

Zenbatekoa 300 euro edo handiagoa bada, kontratu txiki baten bidez kudeatuko da, eta jarri beharreko publikitatea jarriko da.

Bi kasuetan, aurkeztu beharko da gastua egin dela egiaztatzen duen dokumentazioa (tiketak, fakturak, banku mugimendua...).

2. Bidaiatzeko eskaera agentzia bati

Ordaindu beharreko zenbatekoa 300 € baino txikiagoa bada, saileko laguntzaileak zuzenean ordainduko du. Publizitatea ordainketa dokumentuan bertan (ADO) jasoko da, "eragiketaren testu librea" eremua erabilita.

Adibidez: XXX proiektua (ikerketaren proiektuaren kanpo erreferentzia), MCIU/AEI/10.13039/501100011033 eta Europar Batasunak (Next GenerationEU/PRTR) finantzatua.

Ordaindu beharreko zenbatekoa 300 euro edo handiagoa bada, formalizatu beharreko kontratu txikia formalizatu beharko da, kasuan kasuko publizitatea barne, eta hornitzaileak fakturazio elektronikoa izapidetu beharko du. Ahal den neurrian, ikertzaile nagusiak aurrekontu bat baino gehiago bildu beharko du zerbitzua kontratatatu aurretik.

Nola kudeatu izena ematea kongresu, mintegi edo jardunaldietan?

Aldez aurretik, ikertzaile nagusia harremanetan jarriko da proiektuari esleitutako IAeko teknikariarekin, aurrekontuaren erabilgarritasuna eta gastuaren hautagarritasuna egiaztatzeko. Horren ondoren, Erresilientzia Sailari (resiliencia.dgi@ehu.eus) jakinaraziko dizkio, egin nahi den inskripzioaren xehetasunak, *Hasierako Eskaera* eta legokiokeen IGEA bidaliz.

Inskripzioa egin eta ekitaldiaren antolakuntzari ordaintzen bazaio zuzenean, ez da beharrezkoa izango kontratu txiki bat izapidetzea, ez eta gastua MINERVAn aztertu beharko ere.

Nola kudeatu dezaket pisu baten alokairuaren ordainketa BEM funtsekin finantzatutako proiektu baten kargura? (ad. ikerketa egonaldietan)

Alokairu kontratua ezin da unibertsitatearen izenean egin, baizik eta legokiokeen ikertzailearen izenean. Kontratuak berariaz aipatu beharko du pertsona UPV/EHUren proiektu batean ari dela lanean (erreferentzia adierazita), nahitaezko publizitatea eta Next Generation funtsen erreferentzia zehaztuta (adib. TED2021-100503B-I00 proiektua, MCIU/AEI/10.13039/501100011033 eta Next GenerationEU/PRTR Europar Batasunak finantzatua).

Zer da MINERVA eta zein du funtzioa?

Minerva datuen meatzaritzarako tresna informatikoa da, Espainiako Zerga Administrazioari Estatu Agentzian du egoitza, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresiliencia Plana gauzatzen duten prozeduretan interes gatazkaren arriskua sistematikoki eta automatizatuta aztertzeke erabiltzen da.

Legeak **adierazten du noiz** egin behar duen Minervak analisia:

- a) Kontratuak esleitzeko prozeduretan.
- b) **Subentzioak emateko prozeduretan**, konkurrentzia masiboko lehiaketak izan ezik, hau da, ehun eskaera baino gehiago dituztenak. Konkurrentzia masiboa duten hauetan, analisia lagin baten gainean egingo da.

Era berean, jasotako jarraibideen arabera, Minerva analisia ere egin behar da honakootan:

- c) Kontratu txikietan.
- d) Pertsonalaren kontratazioan.

Interes gatazkaren arriskuaren analisi sistematikoa eta automatizatua aplikagarria zaie enplegatu publikoei eta gainerako langileei, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozedura deskribatuetan banaka edo kide anitzeko organoetako kide diren erakunde erabakitzaile, betearazle eta instrumentalen zerbitzura direnak.

Analisi hori egiteko, eragiketaren arduradunek eragiketaren erreferentzia kodea (EEK) sartu beharko dute MINERVAn. Kode horrez gain, emango zaizkie:

- Analsiak barne hartu beharreko pertsonen identifikazio fiskaleko zenbakiak (eragiketaren erabakitzaileak), zein bere izen-deiturekin.
- prozedura bakoitzean parte hartzen duten pertsona fisikoen edo juridikoen identifikazio fiskaleko zenbakiak, zein bere izen-deiturekin (lehenengoen kasuan) eta izen sozialarekin (bigarrenen kasuan).

Bada Minervaren eskuliburu bat, non azaltzen baita Minerva analisia egiteko jarraitu beharreko prozedura osoa.

Gainera, prozedura laburtu egiten da Minerva Minigidan.